

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Atal honetan, gure bezeroekin izango dugun harremana zein izango den zehaztuko dugu. Gure bezeroekiko harremana ezinbestekoa denez, arreta handia eskainiko diogun atala izango da.



Gure bezeroek diagnostiko bat dutenez, arreta berezi bat behar dute eta gure gertutasuna ezinbestekoa izan behar da. Gure bezero bakoitzak diagnostiko desberdin bat duenez, bere beharretara egokitu beharko gara. Hori lortzeko gure bezeroei zerbitzu pertsonal bat emango diegu, bezeroei gure zerbitzuaren gertutasuna sentiarazteko. Gainera, bakoitzaren ikasketa-maila handitzeko behar-beharrezkoa da gure bezeroekiko gertutasuna.

Horrez gain, gure bezeroei dedikazioa ematea ere beharrezkoa iruditzen zaigu. Gure zerbitzua aurrera eraman ahal izateko eta bezeroen beharra aseta gelditzeko, bezeroei eskaintzen diegun dedikazioa oinarritzkoa baita. Honek gure bezeroaren jarraipen akademikoa mantentzen lagunduko digu ikasturtean zehar ahalik eta erosoan sentitu dadin.

Hau ikaslearekin edukiko dugun harremana da, baina gure bezeroa adin txikikoa izango denez, bere gurasoekin harremana mantentzea ere ezinbestekoa da.

Gurasoak ere gurekin harremana mantentzeko gure lokalera gerturatu daitezke. Bertan aurrez aurre komunikatzeko aukera izango dugu, edozein arazo edo zalantza argitzeko. Ikasle berri batekin lanean hasi aurretik, ezagutzea gustatzen zaigu. Askotan, gurasoei eta guri ere erosoagoa egiten zaigu gure ikasleak zuzenean ezagutzea mugikorraren bidez hitz egiten ibili gabe.

Aurrez aurreko zerbitzua izateaz gain, webgune bat ere eskaintzen dugu. Bertan gure zerbitzuaren informazioa aurkitu dezakete gure bezeroen gurasoek. Bertan gure informazioa hiru atal nagusietan banatuko dugu. Lehenengo atalean, nortzuk garen, gure helburu nagusiak, gure proiektuaren ideia eta garapena, non kokatuta gauden eta gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia agertuko dira. Bigarrenean, berriz, eskaintzen dugun zerbitzuaren funtzionamendua eta prezioa zehaztuko ditugu. Azkenik, hirugarren atalean, egutegi bat izango dugu libre ditugun orduak erakutsiz bezeroek ondoen etortzen zaien ordutegia aukeratu dezaten.



Azkenik, gure zerbitzuaren lehen hizkuntza euskara izango da. Gure bezeroen eskoletako materiala euskaraz ematen denez, gure zerbitzua ere euskaraz emango dugulako. Hala ere, nahiz eta klaseak euskaraz eman, gurasoren bat gurekin kontaktuan jartzerako garaian gaztelaniaz edo ingelesez erosoago sentitzen bada, ez dugu hizkuntza aldatzeko arazorik izango, horretarako guztiz prestatuta gaude eta.

Laburbilduz, gure bezeroekiko harremana gertukoa, pertsonalizatua eta dedikatua izango da, ikasle guztien beharrak eta garapena lehenetsiz. Ikasleekiko harremana zuzenekoa eta etengabea izango da, eta, era berean, gurasoekin komunikazioa mantentzea beharrezkoa denez, aurrez aurreko bilerak edo webgune bidez informazioa eskainiz. Horrek guztiak, gure zerbitzuaren kalitatea erakusten du, ikasle eta familiek eroso eta konfiantzan jardun dezaten gurekin.

